

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Iragarkia

Musika eta Dantza Eskolako kudeatzaileak, «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren Estatutueta 17.h) artikulua ematen dion eskumenaz baliatuz, 2026ko uztailaren 28an, honakoa ebatzi du:

Kudeatzailearen 2026ko martxoaren 23ko Ebazpenaren bidez Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Irakasle plaza bat, Irakaslea (Fagota) lanpostua, lehiaketa-oposizio bidez txanda librean behin betiko betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak onartu ziren.

Deialdia eta oinarri espezifikoak 2026ko apirilaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 68. zk.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Kudeatzailearen 2026ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez (2026ko uztailaren 13ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 130. zk.), hautaketa prozesuan onartutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Seigarren oinarri orokorrak ezartzen duenez, hautaketa prozesu bakoitzeko lehen ariketa egiteko deialdia, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da.

Akats zuzenketak eta erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Musika eta Dantza Eskolako Kudeatzaileak, Erakunde Autonomoaren Estatutueta 17.h) artikulua ematen dizkion eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Irakasle plaza bat, Irakaslea (Fagota) lanpostua, behin betiko betetzeko hautaketa prozesuan onartutako izangaien behin-behineko zerrenda (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 130. zk., 2026ko uztailaren 13an argitaratua) behin betiko bihurtzea.

Bigarrena. Onartutako izangaiei dei egitea, epaimahai kalifikatzaile bakarraren proposamenez, oposizio faseko 1. ariketa egitera, ondorengo toki, egun eta orduan:

— 1. ariketa.

Tokia: Musika eta Dantza Eskolaren Atotxako Egoitza (Atotxa Zelaia plaza, 3, Donostia).

Eguna: 2026/09/02.

Ordua: 11:00etan.

Hirugarrena. Ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki-oholean eta Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratzea.

Donostia, 2026ko uztailaren 28a.—Mikel Romero Laibarra, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Erakunde Autonomoaren kudeatzailea. (5199)

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA
DE SAN SEBASTIÁN*Anuncio*

El Gerente de la Escuela de Música y Danza, en virtud de la Competencia que se le atribuye en el art. 17.h) de los Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza», con fecha 28 de julio de 2026, ha adoptado la siguiente Resolución:

Mediante Resolución de Gerencia de 23 de marzo de 2026 se aprobaron la convocatoria y las bases específicas del proceso selectivo para la provisión definitiva por turno libre mediante concurso-oposición de 1 plaza de Profesor/a de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián, puesto Profesor/a (Fagot).

La convocatoria y las bases específicas fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 68, de 15 de abril de 2026.

Terminado el plazo de presentación de solicitudes, mediante Resolución de Gerencia de 30 de junio de 2026, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 130, de 13 de julio de 2026, se aprobó la lista provisional de personas aspirantes admitidas del proceso selectivo.

La base general sexta establece que la convocatoria para la realización del primer ejercicio de cada proceso selectivo se publicará, conjuntamente con la lista definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas.

Expirado el plazo para subsanar los defectos u omisiones y formular reclamaciones, no habiéndose presentado ninguna reclamación, el Gerente de la Escuela de Música y Danza, en virtud de las atribuciones que le confiere el artículo 17.h) de los Estatutos del Organismo Autónomo,

RESUELVE

Primero. Elevar a definitiva la lista provisional de personas aspirantes admitidas del proceso selectivo para la provisión definitiva de 1 plaza de Profesor/a de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián, puesto Profesor/a (Fagot), publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 130, de 13 de julio de 2026.

Segundo. Convocar a las personas aspirantes admitidas, a propuesta del tribunal calificador único, a la realización del ejercicio 1 de la fase de oposición, que se realizará:

— Ejercicio 1.

Lugar: Sede de Atotxa de la Escuela de Música y Danza (Atotxa Zelaia plaza, 3, San Sebastián).

Día: 02/09/2026.

Hora: 11:00 horas.

Tercero. Publicar la presente Resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Organismo Autónomo.

San Sebastián, a 28 de julio de 2026.—El gerente del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián Mikel Romero Laibarra. (5199)